

2026-2028: hiru urte historiaz eta operarekiko pasioz betetako 75 bikoitza ospatzeko.

ABAO BILBAO OPERA-K HIRURTEKO HISTORIKOA HASIKO DU BERE URTEURREN BIKOITZA OSPATZEKO

- Datorren urrian hasiko da omenaldiz eta oroitzapen-ekitaldiz jositako hirurtekoa ABAO Bilbao Operak bere urteurren bikoitza ospatzeko: 75. Opera-denboraldia Bilbon eta, 1953an sortua, Elkaratearen 75 urteak.
- Ospakizuna hiru denboraldiz luzatuko da: 2026-2027an, 75. Denboraldia egingo da; 2027-2028an, apirilean, 75. urteurreneko une gorena izango da; eta ospakizuna 2028-2029 denboraldiaren amaierara arte luzatuko da.
- 75. Denboraldian, nazioarteko panoramako ahots liderrak eta musika-zuzendari ospetsuak maitasunari eskainitako programazioan bilduko dira, zeina, «Nortasun handiko opera» lelopean, baztertu ezinezko bost obrak osatuko duten.
- Asmik Grigorian diva erabatekoa lehen aldiz izango da ABAOn, 2027ko apirilean, eta operako zortzi heroi paregabe osatutako ibilbidea eskainiko du errezital batean, bi pianistarekin batera.
- Berrikuntzaren aldeko apustu argia eginda, ABAOk hiru produkzio eta koprodukzio berri estreinatuko ditu, horietako bi primizia absolutuak.
- ABAO Txiki-k, 22 denboraldi beteko dituenak, ipuin, txotxongilo eta pertsonaia exotikoak ekarriko dituzten lau obra taularatuko ditu, baita musikal handi formatuko bi ekoizpen berri eta ikusgarri ere.
- BBVA Fundazioak denboraldiaren babesle nagusi gisa lagunduko du ABAO Bilbao Operaren kultur jarduera.

Bilbon, 2026ko maiatzaren 6an. **Urriaren 17an**, larunbatean, **ABAO Bilbao Operaren 75. Denboraldia 2026-2027** hasiko da, Giuseppe Verdiren *La Traviata* taularatuta. Hain zuzen, besteak beste, opera horrekin hasi ziren Bilboko **opera-jaialdi legendarioak 1953an**, Operaren Lagunen Bilboko Elkartearen eratuak.

Horrela hasiko dira ABAOk bere urteurren bikoitza, **75. Opera-denboraldia Bilbon eta Elkaratearen 75 urteak 1953an sortu zenetik**, ospatzeko antolatuko dituen programazioaren eta oroitzapen-ekitaldien urteak. ABAO Bilbao Operak Euskadiko kultur garapenean duen balioaren erakusgarri argiak urtemuga biak ere.

«Nortasun handiko opera» lelopean, 2026-2027ko Denboraldiak honako hau eskainiko du:

- **9 obra**, funtsezko bost opera eta ezinbesteko lau ikuskizun.
- **Errezital bikaina** aparteko protagonista batekin.
- **41 emanaldi**, 20 denboraldi orokorrean Euskalduna Bilbaon, gehi bost entsegu orokor, *ABAOren kontzertua*-ren emanaldi 1 Bilboko Elkarte Filarmonikoan eta 15 emanaldi ABAO Txiki denboraldian Arriaga Antzokian.
- **63.700** zale inguruk gozatuko dute datorren denboraldiaz.

BOST EMAKUME MAITATZEKO BESTE HAINBESTE MODUTAKO PROTAGONISTAK

Datorren denboraldiak, estetika oso desberdineko **bost operaren** bidez, maitatzeko beste hainbeste modu kontatuko ditu. Komediatik mitora doan arku narratiboa, opera gaur egungo generoa dela erakusteko, garai guztietako giza irriken isla.

La Traviata, Il barbiere di Siviglia, Die Walküre, Roberto Devereux eta ***Manon Lescaut*** maitasunaren inguruko bidaia bateko geltokiak balira bezala mintzatuko dira elkarrekin.

- *La Traviata*-n, benetako maitasunak gizartearen hipokrisiarekin talka egiten du, eta uko egitearen sakrifizioa eskuzabaltasun-ikasbide bihurtzen da;
- ***Il barbiere di Siviglia***-n, maitasuna gaztaroko jolasa da, non maltzurkeria autoritateari gailentzen zaion;
- ***Die Walküre***-n, maitasuna legeak, jainkoak eta patuak desafiatzen dituen unibertso mitiko batean kokatuta dago;
- ***Roberto Devereux***-ek maitasunaren eta politikaren artean, bihotzaren eta arrazoiaren artean hautatu behar duen erregina baten drama dakar;
- eta bidaiaren amaieran *Manon Lescaut* dago, non anbizioa maitasunari nagusitzen zaion, baina suntsipenaren prezioa ordainduta.

ABAO Bilbao Operaren hiru produkzio eta koprodukzio berri aurkeztuko dira, horietako bi estreinaldiak; eta eszena-zuzendari batek, bi pianistak eta hamalau interpretek debuta egingo dute eta Elkarrearen katalogo artistikora batuko dira.

Bilboko Opera Korua arduratuko da, Esteban Urzelairen zuzendaritzapean, denboraldiko alderdi koralaz, eta Bilbao Orkestra Sinfonikoarekin (Orkestra Nagusia) eta Euskadiko Orkestrarekin batera programazioan parte hartuz ABAO Bilbao Operaren kolaboratzaile egonkor gisa finkatuko da.

Giuseppe Verdi

LA TRAVIATA

2026ko urriak 17, 20, 23 eta 26

«SEMPRE LIBERA... NIRE BIZITZAK PLAZERAREN BIDEAK IBILIKO DITU»

- ***La Traviata*-k, Giuseppe Verdiren** opera ezagun eta antzeztuenetakoak mundu osoan, emango dio hasiera denboraldiari, **BBVA Fundazioaren** babesaz; hala, ABAOk bere historian gehien taularatu dituen operen sailkapenean hirugarren postura igoko da.
- Ikuslea hasiera-hasieratik harrapatzen duten opera horietako bat, glamourrez, ezinezko maitasunez eta emozio eutsiezinez betea. Paris zirrargarrienean girotua, dotorezia eta drama uztartuta, bihotzerako zuzeneko bidaia emozionala da, unean uneko modez haragoko opera klasikoa.
- Abeslari-taldeko buru, nazioartean goraiapatutako bi ahots paregabe: **Jessica Pratt** sopranoa eta **Javier Camarena** tenorra. Jessica Prattek harreman estua du Bilboko publikoarekin, lehenengoz *La sonnambula* eta azkenekoz *Die entführung aus den serrail* antzeztu zituenetik. Camarenak, berriz, oroitzapen apartak utzi ditu bai *Les pêcheurs de perles* eta *Roméo et Juliette* operetan bai 2015ean bakarlari eskaini zuen Kontzertuan.
- **Francesco Ivan Ciampa** maisuak Euskadiko Orkestra zuzenduko du opera honetan, zeinak gogoan iltzatuta geratzen diren melodiak dakartzan, hala nola topa ospetsua eta unerik intimo bezain lazgarrienak.
- Palermoko Teatro Massimo-ren ekoizpena, **Mario Pontiggia** eszena-zuzendariak bereizgarri duen ikusgarritasunaz sortua. Eszenografia klasiko eta tradizional txundigarria dakar, Belle Époque garaian girotua, Art Nouveau eta Art Déco erreferentziekin, luxuzko jantziekin apaindutako eremu eszeniko apartan.

Gioacchino Rossini

IL BARBIERE DI SIVIGLIA

2026ko azaroak 21, 24, 27 eta 30

«JAN, MAITATU, ABESTU... BIZITZA, ROSSINIREN ARABERA»

- **Il barbiere di Siviglia**, Rossiniren operarik famatuenetakoa, erritmoz eta asmamenez jositako komedia da, non Figaro zuhurak mila endredo antolatzen dituen Almaviva kondeari Rosina konkistatzen laguntzeko. Opera fresko eta dinamiko honetan, umorea eta maltzurkeria dira garaile. **Kutxabanke** obra hau babestuko du
- **Andrzej Filończyk, munduko «bizargin» erreferenteetako bat, pertsonaia nagusiaren azalean**, Leonor Bonillaren eta Santiago Ballerinin ondoan.
- Energiatz betetako opera distiratsua, non eszena bakoitza antzerki-joko liluragarria den.
- **Pedro Bartolomé** Burgosko Gazte Orkestra Sinfonikoko zuzendari musikal eta artistikoak **BOS** zuzenduko du musika zirrargarri eta itsaskorraren erritmoan garatzen den partitura honetan.
- **Vincent Dujardin-ek debuta egingo du** ABAOn Ópera royal Wallonie-Liégeois antzokirako sortutako ekoizpenarekin, istorioa 50eko hamarkadako Sevillara eramanda. Eszenogrfian, plaza bat, eszenaz eszena agertzen diren eraikinez inguratua eta ikuslea aparteko ikuskizunean biltzen duten hainbat elementuz hornitua.

Richard Wagner

DIE WALKÜRE

2027ko urtarrilak 23, 26, 29 eta otsailak 1

«EPIKAK JAINKOAK DESAFIATZEN DITUENEAN»

- Denboraldiaren ekuatorean, **Die Walküre** iritsiko da, dramatismo wagneriar hutsa.
- **Der Ring des Nibelungen-en bigarren atalean, intzestu-maitasunak eta beren erabakiekin patuak aldatzen dituzten jaiko suminduak lehen akordetik liluratzen duen zurrumbilo emozionalean gurutzatzen dira.**
- Lehen mailako abeslari-taldeko buru, **Ángeles Blancas, Carla Filipic-Holm, Egils Silins, Daniela Barcellona eta Marko Mimica.**
- Musika-zuzendaritzaz **Pedro Halffter** arduratuko da, Alemaniako errepertorioan aparteko espezialista, eta **BOSen** buru partitura bortitz honi helduko dio, olatu geldiezin, izugarri eta emozioz josia balitz bezala aurrera egiten duenari. «*Walkirien kabalkada*» famatuak esperientzia dramatiko eta limurtzailea eskaintzen du, Eratzunaren zikloaren bihotza adierazten duena.
- ABAO Bilbao Operaren beste ekoizpen baten **nazioarteko estreinaldia. Guillermo Amaya** eszena-zuzendariak sortua, agertokiak gainbehera dagoen gizarte bat irudikatzen du, istorioko protagonisten hauskortasuna agerian uzten duena. Amayak, Haackeren «*Germania*» obretan eta Tony Smithen «*Die*» kubo monumentalean inspiratutako proposamen honekin, maisutasun bikainez darama ikuslea diskurtso wagneriarrari aurre egitera.

Gaetano Donizetti

ROBERTO DEVEREUX

2027ko otsailak 20, 23, 26 eta martxoak 1

«ERRESUMA BAT KOLOKAN JARRI ZUEN PASIOA»

- Donizettiren «erreginen trilogia» delakoak aurrera jarraitzen du ABAOren denboraldietan **Roberto Devereux** operarekin. Konpositoreak Tudor gorteko politika, jelskortasuna eta pasioa edertasun handiko musikarekin uztartzen ditu lan honetan, bel cantoaren obra goraiatu eta bikainenetakoan, hain zuzen ere.
- **Yolanda Auyanet**, joan den denboraldian *Maria Stuarda* maisutasunez antzeztu ostean, Isabel I.a erregina atsekabetua izango da oraingoan. Haren ondoan agertokian, **Ismael Jordi** tenor granadarra (Roberto Devereux), Pablo Ruiz (Nottinghameko dukea) eta **Silvia Tro Santafé** (Sara).
- **Iván López Reynoso** zuzendari mexikarrak **Euskadiko Orkestra** gidatuko du musika zirrargarriz eta hunkigarriz osatutako opera honetan, birtuosismo-etzanda hutsa diren ariaz betean.
- ABAO Bilbao Operaren eta Oviedoko Opera Fundazioaren koprodukzioaren nazioarteko **estreinaldia**. **Emilio López** eszena-zuzendariak sortua, estetika tradizionalaren eta garaikidearen arteko nahasketa da, antzerki- eta jauregi-giroz bildua eta bai jantzi bai argi-joko ikusgarriz hornitua.

Giacomo Puccini

MANON LESCAUT

2027ko maiatzak 22, 25, 28 eta 31

«EROTISMOA, DELIRIOA ETA PEKAMENA»

- Denboraldiko azken obra **Manon Lescaut** izango da, **Giacomo Puccinirena**, edozein operazalerentzat ezinbestekoa, **BBVA Fundazioaren** babesaz.
- Kontrastez betea, luxuaren eta pobreziaren, desioaren eta erruaren, askatasunaren eta galeraren artean, *Manon Lescaut* opera zirrargarri eta liluragarria da, eszena bakoitza Pucciniren indar bereizgarriaz bildua duena.
- Abeslari nagusiak, **Joyce El-Koury** soprano aparta eta **Michael Fabiano** tenor amerikar bikaina. **Manel Esteve** baritonoak (Lescaut) eta Bruno de Simone baritonoak (Geronte) osatuko dute laukote protagonista.
- Musikaz **Carlo Montanaro** zuzendaria arduratuko da eta, **Bilbao Orkestra Sinfonikoa** zuzenduz, ahalik eta etekinik handiena aterako dio opera honen partitura bizi eta hunkigarriari, eraginkortasun handiko eszenak dituenari, hala nola «*Sola, perduta, abbandonata*» ezin ospetsuagoa.
- **ABAO Bilbao Operaren eta Oviedoko Opera Fundazioaren koprodukzioaren estreinaldia**. **Emiliano Suárezek** sortua, opera 1920ko hamarkadako Estatu Batuetako estetika mafiosoan oinarritutako iruditerian girotuta dago, krimen antolatuen, lege lehorraren eta klub klandestinoen aro betean. Verismoa *noir* eran, non Pucciniren indar emozionala zinema beltzaren kodearen, komiki ilunaren eta *The Penguin*, *Casino*, *Cabaret*, *The Great Gatsby*, *Batman* eta/edo *Babylon* filmen bidez iragazten den.

ASMIK GRIGORIANEK, NOTA BAKOITZA ZIRRARA HUTSA BILAKATZEN DUEN DIVAK, «ZORTZI BELO» ERREZITALAZ EGINGO DU DEBUTA ABAO-N

- **Asmik Grigorianek** 2027ko apirilaren 10ean debutatuko du ABAO Bilbao Operan, **Bilboko Elkarte Filarmonikoan** errezitala eskainiz. Artistak bere alderik pertsonal eta adierazkorrena agertuko du antzeztu ohi dituen opera-pertsonaia nagusien ariez eta eszenez osatutako programan. **Petras eta Lukas Geniušas** pianistak izango ditu lagun, nor bere pianoa jotzen, nazioarteko areto erreferenteetan sarritan bezala.
- Richard Straussen «Zazpi beloen dantza» oinarri, «**Zortzi Belo**» errezitalak operako zortzi heroi paregabez osatutako ibilbidea proposatzen du. Aria bakoitza errebelazio eszenikoko unea da. Rusalkaren grina lirikoa, Salomeren adierazkortasun sakona, eta tartean Butterfly, Elisabeth, Manon, Turandot, Lady Macbeth eta Desdemona. Zortzi eszena, zortzi ahots, zortzi modu musikaren bidez halabeharrari aurre egiteko.
- Kritikak «*egungo eszenako talentu dramatiko bizienetakoa*» (The New York Times) izendatua, soprano lituaniarra artista erreferentea da egun. Datozen hilabeteetan, Frankfurt, Baden-Baden, Metropolitan, Budapest, Viena, Salzburgo eta Bayreuthen abestuko du, besteak beste.
- 2025ean, Emakumezko Abeslari Onenaren saria jaso zuen Opera Awards sariketan, egindako denboraldi bikainagatik, Parisko Operan *Il tritico* obrako hiru heroiaren antzezenagatik eta Londresko Orkestra Sinfonikoarekin batera eskainitako *Salome* goraiapatuagatik.
- Asmik Grigorianen errezitalak emanaldi bakarra izango du, bazkide-abonamendutik kanpo, **BBVA Fundazioak** babestuta.

ABAO TXIKI-REN XXII. DENBORALDIA

- ABAO Txikiren hogeita bigarren edizioak Arriaga Antzokian lau ikuskizun, bi ekoizpen berri eta 15 emanaldi eskainiko ditu, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzako hiru barne.
- **2026ko azaroa. *Soñando el carnaval de los animales***. Debussyren *Fauno baten siestaren preludioa* eta Saint-Saënsen *Animalien inauteria* pasarte ospetsua biltzen dituen kontzertu antzeztua. Enrique Lanzen eta Etcétera konpainiaren txotxongiloek esna amets egitera gonbidatzen dituzte ikusleak, faunokume bat pianoaren ondoan lo dagoen bitartean.
- **2027ko urtarrila. *Alí Babá y los cuarenta ladrones***. «Mila gau eta bat gehiago» ipuin tradizionalaren egokitzapena, Iñigo Casaliren musika duena eta Nafarroako Ganbera Operaren ekoizpen berri ikusgarria dena, musikal handi erakoa.
- **2027ko martxoa. *La princesa árabe***. Juan Crisóstomo Arriaga bilbotarraren musikaz osatutako opera honek Jamil ahots ederreko arrain-saltzaile gaztearen eta Amirah printzesa apetatsuaren istorioa kontatzen du. Nafarroako Ganbera Operak ikuskizun ikusgarria dakar ekoizpen honetan, kolorez, misterioz eta magiaz betea.
- **2027ko maiatza. *El sastrecillo valiente***. Etcétera konpainiak eta Enrique Lanzen Grimm anaien kontakizun tradizionalan oinarrituta sortutako ipuin musikala. Antzoki bateko jostundegian, txotxongiloek, itzalek, proiektzioek, aktoreek eta ganbera-orkestra batek Tibor Harsányren musikaz garatzen dute ikuskizuna.

- Datorren denboraldian, **ABAO Bilbao Operak eta Bizkaibusek** elkarlanean jarraituko dute Bizkaiko gazteen artean garraio publikoaren erabilera eta operarekiko zaletasuna aktibatzen, «Bizkaibusek operara hurbiltzen zaitu» izeneko kanpainaren bidez. Ekimenak mugikortasun jasangarriaren eta ingurumenarekiko errespetuaren inguruko balioak sustatzea du helburu.

ABAO ESKURAGARRI: OPERA GIZARTE OSOARI HURBILTZEKO KULTURA- ETA GIZARTE-EKIMENEN SAREA

- **ABAO Bilbao Operak ABAO ESKURAGARRI** programa garatzen du bere denboraldian, doako eta publikoari irekitako jarduera-sorta zabala biltzen duen kultura- eta gizarte-ekimena, opera herritarrei hurbiltzeko, kultur partaidetza sustatzeko, eta ezagutza, hausnarketa eta gozamen artistikorako gune partekatuak sortzeko helburuz.
- Programazioaren barruan, **El ABC de la Ópera** zikloa nabarmentzen da, Deustuko Unibertsitatean egiten dena eta musikaren zein kulturaren arloko dibulgatzaile eta profesional ezagun hauen hitzaldiak eskaintzen dituena: Rafael Bernardo eta Mariela Rubio kazetariak, Luis Gago musika-kritikari eta editorea, Irene de Juan musikologoa, Pablo L. Rodríguez katedraduna, eta Rubén Amón kazetari eta idazle ospetsua.
- ABAOren hezkuntza-konpromisoa eskola-eremura ere hedatzen da, bere **programa didaktikoaren** bidez. Urtero ehun ikastetxe ingurutan garatua, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleentzako programak material pedagogikoak, ABAO Txikiren denboraldiko eskola-emanaldiak eta ikasle adindunak denboraldi orokorreko ikuskizunetara joateko aukera uztartzen ditu.
- Prestakuntza-lan hori helduekin ere egiten da, esperientzia-gelekin, adinekoen **kultur zentroekin, unibertsitateekin eta bai Bizkaiko udalekin** bai beste hiri batzuetakoekin (Gasteiz, Iruñea, Burgos eta Santander) lankidetzan.
- Dibulgazioaren alorrean, **ABAOk Concierto Desorden zuzeneko podcasta** sustatzen du, Euskal Herriko Unibertsitatearekin (EHU) lankidetzan eta Gonzalo Lahozen gidaritzapean. Saio bakoitzean, operaren munduko pertsona nabarmen batek bere ibilbidearen eta esperientziaren berri ematen du topaketa irekian, publikoa bertan dagoela.
- Era berean, ABAOk elkarlanean jarraitzen du **EITBrekin, denboraldiko** operak eta kontzertuak grabatu eta telebistan eman ditzan. 2022. urteaz gozotik sortutako ikus-entzunezko katalogoan, hamalau ekoizpen daude gaur egun, horien artean operak, kontzertuak, ABAO Txikiren euskarazko proposamenak eta Tutto Verdi Sarien Gala.
- **Ópera y +** programak ABAOren alderdi soziala sendotzen du, **Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko** pazienteen, haien senideen eta osasungintzako langileen ongizate emozionala hobetzera bideratutako ekimen kultural, solidario eta inklusiboaren bidez. Hamabi arlo medikotan garatua, proiektuak **“la Caixa” Fundazioaren, Zabalgarbiren, Gondra Barandiarán Fundazioaren** eta **Orona Fundazioaren** laguntza du.
- Halaber, ABAOk publiko berriak erakartzearen aldeko apustua egiten jarraitzen du, **Gazteam ABAOren** bitartez. Proposamen horrek operaz gozatzeko modua errazten die gazteei, formula malguak eta tarifa murriztuak eskaintzen baitizkie denboraldiko edozein obra edo emanaldira joateko.



ABAO BASQUE MUSIKASTE FESTIBALAREN LEHEN EDIZIOA

OLBE Bilbao Operak datorren ekainean programatuko du **OLBE Basque Musikaste-ren** lehen edizioa. Errezitaldi eta ganbera-kontzertuen ziklo bat da, nazioarteko interprete entzutetsuekin: **Kyōhei Sorita** (pianoa), **Boris Borgolotto** (biolina), **Steven Lin Solana** (pianoa) eta **Quatuor Arod** harizko laukotea. Emanaldiak eskainiko dituzte Gasteizen (ekainaren 3an), Donostian (ekainaren 4an) eta Bilbon (ekainaren 5ean eta 9an).

ABAO Basque Musikaste Festival jaialdiak musika klasikoaren erreferentia izan nahi du, nazioarteko bakarlari eta taldeek bai konpositore ospetsuen programak bai beste egile batzuen nobedadeak jorratuz, ehunka zale musika-unibertso berrietara hurbilduko dituztenak. Hitzordu bitxia, ilusionagarria, eta kalitate eta prestigio artistiko gorenekoa, zuzeneko musikaren prisma ezberdina eta zirrargarria eskainiko duena.

[MATERIALAK DESKARGATU: EKOIZPENEN ETA ARTISTA NAGUSIEN ARGAZKIAK ETA BOZETOAK.](#)
[75. DENBORALDIA EZAGUTARAZTEKO BIDEOA](#)